# *Erdi aroko Arabaren geografia eta historia*
# *Perspectiva geográfica e histórica de Álava medieval*

José Javier López de Ocáriz Alzola

## Geografia: lurrak, bideak eta paisaiak

Lehenengo eta behin, lurraldea definituko dugu. Antzinako sakonune kantabriarra material mesozoikoz bete zen, eta, alpetar mugimenduen ondorioz, tolesturak sortu ziren, Euskal Herriko geologiaren eskeleto estrukturalaren oinarria. Mendien kateak E-M orientazioa du, kostako lerroarekin paraleloan, Pirinioen kateari jarraituz mendebaldeko muturreraino. Pirinioetako beso horrek isurialdeen banalerro moduan funtzionatzen du, eta tontor aipagarri batzuk ditu: Aizkorri (1.544 m), Gorbeia (1.475 m), Urduñako haitzean apur bat behera eginez (1.039 m). Hegoaldeko isurialdean kubeta zabala irekitzen da, haran handi baten itxuran: Arabako Lautada da, batez beste 600 m-ko altitudea duena, gutxienez 1000 m-ko altuera duten mendiz inguratua. Lautadak 785 km²-ko hedadura du, eta, erdialdean eta irekita dagoenez eta lurzoru emankorra duenez, Araba osatzen duten gainerako haranen nukleoa izan da beti. Ia-ia erdian, muino batean, duela 800 urtetik lurraldean gidari den hiribildua dago: Gasteiz, antzinako herrixkaren gainean kokatua, Euskal Autonomia Erkidegoko gaur egungo hiriburua.

Lurralde murriztu batean –3.047 km²–, Aiaratik edo Aramaiotik Gaubea, Kanpezu edo Guardiaraino klimen eta paisaien aniztasun harrigarria aurkituko dugu, besteak beste baso eta mendi trinkoak, haran isilak eta Ebro ibaiaren ondoko mahastiak. Eskualdeei erreparatuz, hurrengo hauek aurkituko ditugu, iparraldetik hegoaldera: kantabriar eskualdea; Gorbeiaren ingurua; Arabako Lautada; Arabako haranak; Arabako mendiak eta Arabar Errioxa. Hidrografiari erreparatuz, Aiara eta Artziniega iparraldeko haranetako –400 km² inguru– urak, Nerbioi ibaiaren bidez, Bizkaiko itsasora iristen dira, eta beste guztiak, 2.600 km² baino gehiago, Mediterraneo itsasora isurtzen dira. Arrorik zabalena –Lautada– Zadorra ibaiak osatzen du, 85 km-ko luzerarekin. Mendebaldean Baia eta Omecillo daude, ekialdean Inglares, Uda eta Egaren iturburua. Ibaiak gidariak eta

## Panorámica geográfica: tierras, caminos y paisajes

Comenzamos por definir el territorio. La antigua depresión cántabra fue colmatada por materiales mesozoicos que, a consecuencia de los movimientos alpinos, configuraron los plegamientos que fueron la base del esqueleto estructural de la geología del País Vasco. La cadena de montañas sigue preferentemente la orientación E-W, paralela a la línea de costa, prosiguiendo la cadena pirenaica hacia su extremidad occidental. Aún presenta ese brazo pirenaico, que ejerce como divisoria de aguas, ciertas cumbres destacadas: Aitzkorri (1.544 m), Gorbea (1.475 m), para rebajarse en la peña de Orduña (1.039 m). En la vertiente meridional se abre una amplia cubeta, a modo de gran valle: la Llanada alavesa, con 600 m de altitud media, bordeada completamente de montes de al menos 1.000 m de altura. La Llanada, con una extensión de 785 km², por su centralidad, apertura y suelo fértil, ha jugado siempre el papel de núcleo aglutinador de los valles circundantes que componen Álava. Casi en su centro, una colina albergó desde hace 800 años la villa rectora del territorio: Vitoria, emplazada sobre la aldea antigua de Gasteiz, y ahora capital de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En un territorio reducido –3.047 km²– el recorrido desde Ayala o Aramayona, a Valdegovía, Campezo o Laguardia, presenta una sorprendente variedad de climas y paisajes, desde los frondosos bosques y montañas, a valles silenciosos, o a los viñedos junto al río Ebro. En la comarcalización distinguimos, de Norte a Sur: Comarca Cantábrica; Estribaciones del Gorbea; Llanada alavesa; Valles alaveses; Montaña alavesa y Rioja alavesa. La hidrografía es maestra de la geografía. Menos los valles norteños de Ayala y Artziniega –con unos 400 km²– y que desaguan, a través del río Nervión, en el Cantábrico, todo el resto, más de 2.600 km², vierte sus aguas hacia el Mediterráneo. La cuenca más amplia –la Llanada– está formada por el río Zadorra, de 85 km de longitud, al que acompañan por el Oeste

bide-irekitzaileak izan dira, baita haitzarteak ere, haranak komunikatuz, itsasorako bidean beti.

Araba bideen arteko gurutzean egon da beti. Iparraldetik, Gipuzkoan edo Bizkaian zehar, itsasora joateko; ipar-ekialdetik, Akitania eta Frantziara; ekialdetik, Nafarroara; hegoaldetik, Ebroren haran zabalera eta Errioxara; mendebaldetik, Gaztelako goi-lautadara. Mendiak eta zatiketa geografikoa gorabehera, Araba zeharkatu izan da beti, erromatar bideetatik, Donejakue Bideetatik eta gaur egun Madril eta Lisboa Paris eta Europarekin lotzen dituzten nazioarteko bide zuzenetatik.

Mendien zeharkako orientazioa dela bide, ekialdea-mendebaldea noranzkoan jarrita daudenez, iparraldetik Bizkaiko Itsasorantz eta hegoaldetik Ebro haraneko eta Gaztelako lur irekietarantz zihoazen bide nagusiek ibai nagusien igarobideak eta haitzarteak aprobetxatu behar zituzten bi isurialdeetan. Ibai-sareko igarobide estu horiek eta mendate batzuek lurraldea kontrolatu eta defendatzeko puntu estrategikoak erakarri zituzten beti. Lehenengo kastroek eta gero gazteluek, leku malkartsuetan, zainketarako eta defentsarako barruti eta talaia horiek hartu zituzten. Historiaurrean, Buradongo kastroa Conchas de Haroren gainean, Ebrotik pauso batera, Velegia herrixka Zadorra ibaiaren gainean, eta Lastrako kastroak (Karanka) Omecillo ibaiaren gainean. Goi Erdi Aroan eta Erdi Aro Betean, ezagunak dira gaztelu-talaia hauek: Lantarón, Araia, Zaitegi, Pikozorrotz, Zaldiaran, Estibaliz, Arluzea, Asa, Toloño, Herrera, Toro. Beste batzuk geroago bilakatu ziren eta Behe Erdi Aroan ere iraun zuten; esaterako, Zabalate, Ozio, Bernedo, Mendoza, Martioda, Gebara, Astúlez, Nograro, Fontecha eta Villanañe; eta dorre gotortuak: Urbina Basabe, Villamaderne, Kexaa, Morillas, Jokano, Zarate, Lacorzana, Piédrola, Gauna, Galarreta, Oreitia, Dulantzi, Eskibel eta beste asko. Multzoa osatzeko, hiribildu gotortuen sare gero eta trinkoagoa aipatu behar da: Guardia, Gasteiz, Agurain, Labraza, Bastida, Gatzaga Buradon, Antoñana, Urizaharra, Santikurutze Kanpezu, Kontrasta, Bernedo, Legutio eta Artziniega.

Erdi Aroko bideen garapenean erromatar aldiko trazadura sendoak daude. Antonioren Ibilbidean edo *Iter XXXIV* izenekoan markatutako bideak Astorga eta Bordele lotzen zituen. Bide horren lehenengo tarteak hegoalde-iparralde orientazioa du, eta, neurri batean, Zadorra ibaian gora egiten du; bigarren tartea ibaitik bereizi egiten da eta mendebalde-ekialde norabidean bira egiten du Armentiaren inguruan gutxi gorabehera, modu horretan Lautada zeharkatuz eta Estibalizen eta Agurainen oinetatik igaroz. Bide horren erdi inguruan,

el Bayas y el Omecillo, por el Este el Inglares, Ayuda y el nacimiento del Ega. Los ríos han servido de guía y apertura de caminos, incluso por gargantas entre montañas, comunicando valles, buscando el mar.

La ubicación de Álava la ha convertido siempre en lugar de paso obligado, en un cruce de caminos. Por el Norte, a través de Gipuzkoa o Bizkaia, al mar; por el nordeste, hacia Aquitania y Francia; por el Este, a Navarra; por el Sur, al amplio valle del Ebro y La Rioja; por el Oeste, hacia la meseta y valles de Castilla. Pese a las montañas y a la fragmentación geográfica, se transita por ella, desde las vías romanas, los caminos jacobeos y las rutas internacionales directas para unir hoy Madrid y Lisboa con París y Europa.

Dada la orientación trasversal de las montañas, dispuestas en sentido Este-Oeste, las principales rutas que trataban de abrirse hacia el mar Cantábrico, por el Norte o hacia las tierras abiertas del valle del Ebro y de Castilla por el Sur, debían aprovechar los pasos y gargantas de los ríos principales, en cada una de ambas vertientes. Estos pasos estrechos en la red fluvial y algunos puertos de montaña, atrajeron siempre los puntos estratégicos de control y defensa del territorio. Primero los castros y luego los castillos, ocuparon, en lugares escarpados, esos enclaves y atalayas de vigía y defensa. En época protohistórica, el castro de Buradón sobre las Conchas de Haro, en un paso del Ebro, el poblado de Velegia sobre el Zadorra, Los Castros de Lastra (Caranca) sobre el río Omecillo. En la alta y plena Edad Media, son nombrados los castillos-atalaya de Lantarón, Araia, Zaitegui, Pikozorrotz, Zaldiaran, Estíbaliz, Arluzea, Assa, Toloño, Herrera, Toro. Hay otros que evolucionaron más tarde perdurando ampliados en etapas bajomedievales, como Portilla, Ocio, Bernedo, Mendoza, Mártioda, Guevara, Astúlez, Nograro, Fontecha o Villanañe, seguidos por torres fortificadas: Urbina de Basabe, Villamaderne, Quejana, Morillas, Jokano, Zárate, Lacorzana, Piédrola, Gauna, Galarreta, Oreitia, Alegría, Esquíbel, y tantas otras. Al final el conjunto se complementa con la red, cada vez más densa, de villas fortificadas: Laguardia, Vitoria, Salvatierra, Labraza, Labastida, Salinillas de Buradón, Antoñana, Peñacerrada, Santa Cruz de Campezo, Kontrasta, Bernedo, Villarreal y Artziniega.

En el desarrollo viario medieval aún perduran trazados muy sólidos de época romana. Siguiendo en Álava la vía marcada en el Itinerario de Antonio o *Iter XXXIV*, que enlazaba Astorga con Burdeos, el primer tramo se orienta de Sur a Norte, remontando en parte el discurrir del río Zadorra, el segundo se separa del río y dobla en dirección Oeste-Este hacia la altura de



*Kuartangoko harana* / *Valle de Kuartango*

lotune batek Trebiñuko lurrak diagonalean gurutzatzen zituen, ipar-mendebaldetik hego-ekialdera, Trebiñu, Albaita eta Obekuri zeharkatuz, Nafarroako Marañón ingururantz. Bide hori Ebrora jaisten zen Mendabian eta Nafarroako Erriberan. Bide horretatik hurbil, Lizarratik, beste bide bat iristen zen, eta, Kanpezu gurutzatuz, Kantabriar mendikatea inguratzen zuen, Kripanerantz, Ebro ibaia igarotzeko lekurik onenak bilatzeko, Asan edo Mañuetan. *Iter XXXIV* izenekoarekin zegoen beste lotura batek mendebalderantz egiten zuen eta Kuartangotik jaisten zen bidearekin konektatzen zuen, Baia ibaiari jarraituz, Rivabellosarantz eta Ebrorantz. Inguru horretatik, agian Larrazubitik, iparralderantz beste bide bat zihoan, Espejo, Osma –iraganeko Uxama Barca– eta Losa harana zeharkatu ondoren Urduñara jaisten zena eta ondoren Nerbioi ibaiaren ibilguari jarraitzen ziona, Amurriotik eta Laudiotik, Bizkaiko kostalde-

Armentia, cruzando así la Llanada y pasando al pie de Estíbaliz y de Salvatierra. Hacia el centro de esta vía, un enlace cruzaba las tierras de Treviño en diagonal Noroeste-Sureste, pasando por Treviño, Albaina y Obécuri, hacia la zona navarra de Marañón, para bajar al Ebro en Mendavia y Ribera de Navarra. Próxima a ésta llegaba, desde la zona de Estella, un camino que, cruzando por Campezo, doblaba la sierra de Cantabria hacia Kripan, para buscar los mejores pasos del río Ebro, en Assa o en Baños de Ebro. Otro enlace con el *Iter XXXIV* se dirigía hacia el Oeste, para conectar con la vía que bajaba desde Kuartango, siguiendo el río Bayas, hacia Ribavellosa y el Ebro. De esta zona, quizá desde Puentelarrá, subía hacia el Norte una vía que cruzaba Espejo, Osma –antigua Uxama Barca– y el valle de Losa, bajando a Orduña, para proseguir el curso del río Nervión, por Amurrio y Llodio, hacia la costa vizcaí-

raino. Leku gehiegirik ez dugunez, ez ditugu aipatuko bideak eraikitzeko teknikak, bideen eraikuntzan parte hartu zuten lan-ekipoak eta ogibideak, materialak eta erremintak, eta zabalerari, indargarriei, hustubideei, peralteei, mantentzeari eta konponketei lotutako irizpideak. Era berean, aipatu gabe utziko ditugu bideekin zerikusia zuten eraikinak edo instalazioak: zubiak, ostatuak eta ospitaleak.

Silosko kronika Leónen idatzi zuen XII. mendearen bigarren hamarkadaren inguruan San Domingo Silosko monasteriotik iritsitako monje batek. Lan horretan, Nafarroako Antso Nagusiaren eginkizunak goratzen dira. Latineko testuaren itzulpenak hurrengoa dio: "Paganoen boteretik askatu zuen Pirinio mendietatik Naiarako gaztelurainoko lur guztia eta Donejakue Bidetik oztopoak kendu zituen; izan ere, erromesek, barbaroen beldur, Arabako bide galduetatik desbideratzen ziren". Informazio hori Naiarako kronikak eta Lucas de Tuyk jaso zuten, eta *Crónica General* izenekora ere bildu zen.

Irekitako bide berria *Codex Calixtinus* delakoan Aymeric Picaudek erabilitakoa dela jotzen da: Eunatetik eta Garesetik, Lizarra zeharkatuz eta Logroñon Ebrora jaitsiz, eta ondoren Naiaratik eta Ozkabartetik Burgoserantz jarraituz. Bestalde, bide horren iparraldean, bidaiariek eta merkatariek Arabako aipatutako bideak erabiltzen jarraitu zuten, eta erromesentzat beste bide bat izan zitekeen, agian itzultzeko bide moduan nahiago zena. Horren froga dira, besteak beste, Santiagoren, San Martinen eta Santa Marinaren Donejakueren jaierak eta ibilbideko puntu batzuetan ospitaleak egotea.

Adierazitako bideak baino galduagoak ziren bidetzat zenbait har daitezke: Lautada iparraldeko ertzetik, iparraldeko mendilerroen babesean, zeharkatu, Barrundia, Ganboa, Ubarrundia, Zigoitia eta Zuia lotu eta Bizkairantz doana; Estibaliztik mendiko bideetan zehar Kanpezurantz eta Lizarrarantz edo Ebrorantz doana; beste korridore bat, Toloño eta Kantabriar mendilerroek babesten dutena, Urizaharko eta Bernedoko lurrak Nafarroarekin lotzen dituena. Horrez gain, beste lotura bat Gaubeatik Burgosko Losa eta Mena haranetara bideratzen zen; Araia harana ere Balmasedarantz eta Karrantzarantz irekitzen zen; Lautada Leintz haranarekin eta Deba ibaiaren arroarekin komunikatzen zen, eta Behe Erdi Aroan eta geroago jende asko Gipuzkoako Goierrira hemendik joaten zen, San Adriángo tunel naturaletik.

Gaur egun, klima-aldaketaren aukerak komunikabideetan boladan daude, eta polemika ugari daude horren inguruan. Iraganari dagokionez, ikerketa ugari daude, baina denbora eta lekua zehaztu nahi direnean

na. Por falta de espacio no aludimos a las técnicas de construcción de los caminos, a los equipos de trabajo y oficios implicados en su construcción, materiales y herramientas, a los criterios utilizados en cuanto a anchura, refuerzos, desagües, peraltes, mantenimiento y reparaciones. Otro tanto con respecto a edificios o instalaciones relacionadas: puentes, posadas y hospitales.

La crónica silense fue escrita en León hacia la segunda década del siglo XII por un monje procedente del monasterio de Santo Domingo de Silos, que ensalza la obra de Sancho el Mayor de Navarra. La traducción del texto latino viene a señalar: "Arrebatando al poder de los paganos cuanta tierra se contiene desde los mismos montes Pirineos hasta el castillo de Nájera, despejó y liberó de obstáculos el camino de Santiago, que ante el temor a los bárbaros los peregrinos desviaban por los caminos extraviados de Álava". Esta información será retomada por la crónica Najerense y por Lucas de Tuy, de manera que incluso se recogerá en la *Crónica General*.

Se supone que la nueva ruta abierta es la seguida en el *Codex Calixtinus* por Aymeric Picaud: desde Eunate y Puente la Reina, atravesando Estella y bajando al Ebro en Logroño para continuar por Nájera y Santo Domingo de la Calzada hacia Burgos. Por otro lado, al norte de esa vía, los citados caminos de Álava siguieron siendo utilizados por viajeros o comerciantes, y para los peregrinos pudo constituir una vía alternativa, quizá preferida como ruta de regreso. Prueba de ello son las advocaciones jacobeas de Santiago, San Martín o Santa Marina, entre otras, y la existencia de hospitales en puntos del recorrido.

Propiamente como sendas extraviadas, más recónditas que las vías indicadas, pueden considerarse varias: la que cruza por el borde norte de la Llanada al abrigo de las sierras septentrionales y une Barrundia, Gamboa, Ubarrundia, Zigoitia y Zuia hacia Bizkaia; la ruta que desde Estíbaliz, por pasos de montaña, se encamina hacia Campezo y Estella o hacia el Ebro; otro corredor, protegido por las sierras de Toloño y Cantabria, que une las tierras de Peñacerrada y Bernedo con Navarra. Además otro enlace se dirigía desde Valdegovía hacia los valles burgaleses de Losa y Mena; también el valle de Ayala se abría en rutas hacia Balmaseda y Carranza; lo mismo la Llanada comunicaba fácilmente con el valle de Léniz y la cuenca del río Deva, y lo hará, con gran afluencia en la Baja Edad Media y después, hacia el Gohierri guipuzcoano por el túnel natural de San Adrián.

Actualmente las alternativas del cambio climático son un tema de moda mediática, abierta a la polémica. Respecto al pasado, proliferan los estudios, pero el llegar

espekulazioak edo estrapolazioak egin behar dira nahitaez. Gure ikerketan modu orokorrean adostutako ildo nagusi batzuk aplika ditzakegu. Baina, ñabardurak egiteko, dendrokronologiak Alemaniaren hego-mendebalderako egindako taula batzuk erabiliko ditugu, haritzetan *tree rings* izenekoen jarraipena eginda, Hollsteinek aztertutakoaren ildotik, Le Roy Ladurieren azterketan gehitutakoak. Gutxi gorabehera 1000 km-ko distantzia erreferentzia izan daiteke aztertutako inguruan eta aldian, topikoz betetako alderdi bati buruzko datu gehiago ematen ahalegintzeko.

Itxuraz, Erromaren goren unean aurreko aldietan baino klima epelagoa egon zen, baina 400 eta 750 urteen bitartean negu hotzen etapak itzuli ziren. Horren ostean, *Erdi Aroko klima optimo* izenekoa etorri zen, gutxienez 750etik 1215era, edo apur bat gehiago. Fase horren erdialdean, 1000. urtea baino apur bat lehenago, Erik Gorriak eta bere bikingoek Islandia eta Groenlandiaren ertza aldi baterako kolonizatu zituzten. Gerora, Ingalaterran mahastiak landu ziren. Analisi batzuen arabera, 1215etik 1270era klima gozoa izan zen, agian apur bat lehorragoa, eta lehortasun horrek gora egin zuen 1270etik 1310era. Hurrengo hamarkadan, batez ere 1315ean eta 1318an, euri asko egin zuenez, uztak galdu egin ziren, eta Europaren ipar-mendebaldean gosete handiak bizi izan ziren, ondorioz. Lehortasuna 1320tik 1350era itzuli zen, baina eurirantz jo zen berriro, klima-moderazioarekin 1400. urtera arte. Etapa horretan guztian, glaziarrek atzerantz egin zuten, edo ia-ia geldo egon ziren, baina apurka-apurka aurrerantz egin zuten, etapa oso hotza etorri zen-eta, 1590etik 1850era, *Izotz Aro txiki* izenekoan.

Eraikuntza erromanikoen aldian, aldi epelaren barruan, etapa *heze* gutxi aipa daitezke: intentsitate handiz 1050etik 1150era, apur bat gutxiago 1170etik 1200era eta, aldi laburra izan arren, eragin suntsigarriarekin 1310etik 1320ra. Aitzitik, haritzaren hazkunde-uztaiei erreparatuz gero, lodiera gutxi dute 1230etik 1260ra, baina are gutxiago 1270 eta 1300. urteen bitartean. Uztai horiek oso-oso estuak izan ziren 1320 eta 1350. urteen bitartean. Askotan eztabaidatu izan da enborren urteroko hazkundea udaberriko hezetasunaren edo udako beroaren araberakoa den, baina badirudi korrelazioa dagoela hazkunde ahularen eta hezetasun faltaren artean. Eztabaida horretan sakondu gabe, zalantzarik gabe, datuak tokiko informazio dokumentalekin alderatu beharko dira, Belgikan Pierre Alexandrek egin zuen modura, eta, agiririk ez badago, kasu honetan bezala, ondoz ondoko kanpaina arkeologikoetatik lortzen diren emaitzekin. Bitartean, zuhurtziaz, inguruko

a precisiones de tiempo y lugar conlleva forzosamente el especular o extrapolar. Podemos aplicar a nuestro estudio unas líneas generales mayoritariamente consensuadas. Pero, para matizar nos acogeremos a ciertas tablas proporcionadas por la dendrocronología en el sudoeste de Alemania, con el seguimiento de los *tree rings* en los robles, analizados por Hollstein, y encuadrados en el estudio de Le Roy Ladurie. Una distancia aproximada de 1.000 km puede permitir que nos sirva de referencia en la zona y época estudiada, para tratar de aportar más datos sobre un aspecto algo cargado de tópicos.

Se cree que el apogeo de Roma coincidió con un clima más templado que épocas previas, pero regresaron etapas de fríos inviernos entre los años 400 y 750. Sigue un amplio período conocido como *Óptimo climático medieval*, al menos desde 750 a 1215, o algo más. Hacia el medio de esa fase, poco antes del año 1000, es cuando Erik el Rojo y sus vikingos colonizan temporalmente no sólo Islandia, sino el borde de Groenlandia. Posteriormente, incluso se cultiva temporalmente el viñedo en Inglaterra. Según ciertos análisis, de 1215 a 1270 el clima sigue dulce, quizá algo más seco, aridez que localmente se incrementa de 1270 a 1310. La década siguiente, sobre todo en 1315 y 1318, la lluvia es tan persistente que se pierden cosechas y sobrevienen grandes hambrunas en Europa noroccidental. Vuelve la aridez de 1320 hasta 1350, donde el giro hacia la pluviosidad es muy marcado, pero aún con moderación climática hasta el 1400. En toda esta etapa los glaciares han estado en retroceso o casi inertes, pero se repondrán poco a poco hasta su avance en una larga etapa muy fría, que abarca desde 1590 a 1850, en la llamada *pequeña Edad del Hielo*.

En la época de las construcciones románicas, dentro de un período global cálido, podrían superponerse pocas etapas *húmedas*: con intensidad desde 1050 a 1150, algo menos de 1170 a 1200 y, aunque breve, con un desastroso colofón en las cosechas de 1310 a 1320. En cambio, si nos atenemos a los resultados de los anillos de crecimiento del roble, son de poco grosor desde 1230 a 1260, pero aún menos entre 1270 y 1300, llegando al extremo de delgadez entre 1320 y 1350. Se discute si el crecimiento anual de los troncos depende más de la humedad de la primavera o del calor de verano, pero parece que hay correlación entre el débil crecimiento y la falta de humedad. Sin entrar en el debate, indudablemente los datos deberán ser contrastados con informaciones documentales locales, como hizo en Bélgica Pierre Alexandre, y, a falta de éstas, como es el caso en la zona estudiada, con los resultados que se esperan de las sucesivas y futuras campañas arqueológicas.



*Ekialdeko Lautadaren ikuspegia* / *Panorámica de la Llanada oriental*

eraikuntza erromanikoek, batez ere lan berantiarrek, aldi epel eta lehorra aprobetxatu zutela ondoriozta dezakegu. Gaur ezinezkoa da, baina, dokumentazioaren arabera, 1258. urtean Gasteizen inguruan mahastiak zeuden, zehatz esanda Arkaian, Sarricurrin, Lasarten eta Alin. Hori Lautadaren erdialdean gertatzen zen, zerealen inguruan, baina beste laborantza batzuetarako ere aproposa zen lurraldean. Ziurrenik, soberakin ugari lortu ziren eta horiekin lan garrantzitsuak egin ahal izan ziren. Modu horretan, eskualde hori inguruko arteabangoardia bihurtu zen.

Harritzekoa da oso handia ez den lurraldean orografia, zuhaiztiak, lurzoruak eta laborantzak askotarikoak izatea. Substratu geologikoaz gain, erabakigarria da klimari, mendien orientazioari eta itsasoaren hurbiltasunari buruz esandakoa. Baso mota oso esanguratsua da: pagadia, harizti ugari –*quercus pyrenaica, quercus robur*

Mientras tanto, con prudencia, podremos suponer que las construcciones románicas de la zona, especialmente el grueso de obras tardías, aprovecharon un particular y estable episodio cálido y seco. Como algo impensable hoy, se documentan en 1258 viñedos en el entorno de Vitoria, concretamente en Arkaia, Sarricurri, Lasarte y Ali. Si esto ocurría en pleno centro de la Llanada, zona cerealista, pero apta para otros cultivos, seguramente se obtuvieron excedentes en tal grado que permitieron obras de envergadura y así esta comarca se erigió en vanguardia artística del entorno.

Sorprende la variedad de orografía, paisaje arbóreo, tipos de suelos y cultivos, en un territorio no muy grande. Además del sustrato geológico, resulta decisivo lo ya señalado en cuanto al clima, la orientación de las montañas y la proximidad del mar. Resulta muy significativo el tipo de bosque: de hayedo, variado ro-

eta *quercus faginea*– eta artadia. Kantabriar isurialdeak, hau da, Aiarak eta Artziniegak, altitude txikitik eta itsasoaren hurbiltasunetik onurak lortu zituzten, tenperaturak leunagoak eta hezetasuna handiagoa ziren eta. Bertako paisaia Bizkaiko paisaiaren antzekoa da. Gorbeiatik hurbil dauden haranak hezetasunari dagokionez antzekoak baina hotzagoak dira: Zigoitia, Zuia, Urkabustaiz eta Kuartango. Paisaia basotsua da, eta neurri batean bertako basoari eusten zaio, baina plantazioak, larreak eta laborantza-lurrak ere baditu. Ekialdeko eskualde urrunenek, Arabako Mendialdean, antzekotasun nahiko dituzte, baita mendebaldekoek ere, esaterako Gaubea haranak. Azken horretan, Gorbeiaren inguruan baino hezetasun txikiagoa dago, baina baso ugari daude, batez ere Lautada hegoaldetik inguratzen duen mendilerroko pagadi handiengatik. Lautadak batasun berezia osatzen du: emankortasun handiko lurrak dira, bitarteko klima dute eta nekazaritza-esplotazioak ia-ia desagertu arte murriztu dituen baso txikiak. Trebiñuren eta Erriberako haranen paisaia-banaketa antzekoa da. Ezaugarri oso bereziekin, Arabako Errioxan eta Ebroz bestaldeko Errioxako beste lurretan mahasti ospetsuak daude, eta neurri txikiagoan, olibondoak. Paisaia horrek hezetasun txikiagoa du, baina eguzki-esposizio handiagoa, batez ere Ebro ibairaino jaisten diren hegoaldeko hegaletako inklinazioarengatik. Horri esker, nekazaritza-baldintzak ezin hobeak dira.

Hain zuzen ere, Erdi Aroko azterlanetan ekonomia- eta demografia-koiunturari buruz egiten diren analisiek joera optimista dute. Le Goffek dioen moduan, XI. mendetik aurrera Erdi Aroaz hitz egitean ezin da *iluntasun aroa* esaten jarraitu. Bizitza-sistemaren *optimum* izenekoari buruz hitz egiten du, kristautasunaren ideia buru dela, ekonomia-, gizarte-, kultura-, arte- eta erlijio-sistemen arteko oreka lortuz. Multzo osoan, erlijio-sistema faktore giltzarria izango da. Erdi Aro Beteari eta Behe Erdi Aroari erreparatuz, nahitaezko sinplifikazioa aipatu behar da lehenengo fasean, 1000 eta 1180. urteen bitartean, bizkortzea eta goren unea gero 1180 eta 1280. urteen bitartean, 1280 eta 1340. urteen artean mantentzen dena, 1348ko izurriak markatutako Behe Erdi Aroko krisira arte. Baina edozein unetan nagusitasun ziklikoak beherakadak izaten zituen, eta batzuetan baita porrota ere. Hondamendi atmosferikoez –izotza, uholde-euriak, harriteak eta lehortea– eta uztak galtzea eragiten zuten izurriez eta horretatik eratorritako goseteaz gain, izurritearen edo gerren mehatxua zegoen beti, eta horiek heriotza eta erabateko porrota ekartzen zituzten.

Datu gutxi daude Behe Erdi Aroaren aurretik aztertutako inguruan garapen ekonomikoaren maila,

bledal –*quercus pyrenaica, quercus robur* o *quercus faginea*– y de encinar. La vertiente cantábrica, es decir Ayala y Artziniega, se benefician de la baja altitud y de la proximidad del mar, con temperaturas más suaves y mayor humedad. Su tipo de paisaje se aproxima al de Bizkaia. Parecido en humedad, pero bastante más riguroso en cuanto al frío dada su mayor altitud, es el conjunto de valles próximos al Gorbea: Zigoitia, Zuia, Urcabustaiz e incluso Kuartango. El paisaje es muy boscoso, conservando en parte el bosque autóctono, y en parte con plantaciones, pastizales o cultivos. Se le asemejan bastante las comarcas más apartadas del levante: Montaña alavesa, y del poniente: el valle de Valdegovía, con menor humedad que las estribaciones del Gorbea, pero también pobladas de bosque, en particular por los grandes hayedos de la sierra que bordea por el Sur la Llanada. Ésta forma una unidad muy característica, en cuanto a tierras de mucho fondo, de probada fertilidad, de clima intermedio, y que contaron con bosquecillos que la gran explotación agraria ha ido reduciendo hasta casi su extinción. Parecida es la disposición paisajística de Treviño y de los valles de la Ribera. Por fin, con características muy propias, la Rioja alavesa comparte con las otras tierras riojanas de allende el Ebro los afamados cultivos mediterráneos de la vid, y en menor medida del olivo. Su paisaje se resiente de una menor humedad, pero cuenta con mayor exposición solar, sobre todo por la inclinación de las laderas meridionales que descienden hasta el río Ebro, lo que le proporciona unas inmejorables condiciones agrícolas.

Precisamente apuntan en sentido optimista los análisis de coyuntura económica y demográfica que trazan los estudios medievales. Como dice Le Goff, a partir del siglo XI no es posible seguir aludiendo a la *era de tinieblas* al hablar de la Edad Media. Más bien apunta a un *optimum* del sistema de vida regido por la idea de Cristiandad, logrando el equilibrio entre el sistema económico, social, cultural, artístico y religioso, pero donde este último factor se convertía en vertebrador del conjunto. Atendiendo a la Plena y Baja Edad Media, una necesaria simplificación puede caracterizar una primera fase de despegue entre 1000 y 1180, seguida por un marcado aceleramiento con su apogeo entre 1180 y 1280, que se mantiene aún entre 1280 y 1340 hasta la crisis bajomedieval marcada por la peste de 1348. Pero en cualquier momento el predominio cíclico podía tener ondulaciones de declive y localmente de ruina. Además de las catástrofes atmosféricas –hielo, lluvias torrenciales, pedrisco y sequía– o de las plagas que causaban la pérdida de las cosechas, y la consecuente

espezializazioak eta ekoizpen- eta banaketa-sistema zehazteko. Esan daitekeena oso orokorra da. Nekazaritza eta artzaintza ziren nagusi, eta ez abeltzaintza, eta inguru batzuk zerealetara bideratuta zeuden; horren erakusgarri dira errotak, baratzeak, liho-sailak, larreak, sagastiak, eta mahasti urriak. Abereak, larreetan sakabanatuta zein hurbileko inguruetan bilduta, osagarri garrantzitsuak izan zitezkeen, horietatik haragia, esnea eta larruak lortzen ziren eta. Gainera, basoko produktuak ere bazeuden: zura, ikatza, kare-harrobiak, harrobiak, eztia, ehiza eta larruak. Ez zen meatze garrantzitsurik egon, baina burdinolak bai, neurri handian auzoko eskualdeetatik inportatutako mineralekin.

Gatzagak ustiatzen ziren Añanan eta Buradonen, baita Gipuzkoako Leintz haranean ere. Saskigintzak, zeramikak, zura lantzeak eta bestelako tradiziozko eskulangintza batzuek gaur egunera arte iraun dute. Osagai horietako asko tokiko merkatuetan saltzen ziren, eta merkaturik zaharrenak Estibalizen eta Divinan zeuden. Gerora, hiribildu sortu berrietan ezarri ziren, kasuan kasuko hiri-gutunetan ageri den moduan: Gesaltza Añana (1140), Guardia (1164), Gasteiz (1181), Labraza (1196), Agurain (1256), Legutio (1333), Dulantzi (1337), Burgu (1337), Elo (1338). Merkatu-eguna foru berantiarretan finkatu zen: astelehenean, Dulantzin; asteartean, Agurainen; asteazkenean, Legution eta Burgun; larunbatean, Elon. Osteguna libre geratzen da, ziurrenik, aspaldi-aspalditik, Gasteizen merkatua egoten zelako. Gaur egun ere, Gasteizen merkatua ostegunetan izaten da.

### Ikuspegi historikoa: gorabehera historikoak 1000. urtera arte

Erdi Aroa ikertzen duen historialariak, kuria, kantzelaritza eta monasterioetako *scriptoria* izenekoetan informazioa arakatzen trebea denak, dokumentazio hori faltan botako du, ia-ia agrafoa den eskualdean ez dago-eta ekoizpen-zentrorik. Goi Erdi Aroko eta Erdi Aro Beteko aldi luzeetan hori gertatuko da, eta aipamen laburrak, elizakoak, arrotzak dira, eta ez beti esplizituak. Adibidez, historialariek hutsune handiak izan dituzte, besteak beste, 985. eta 1025. urteen artean, eta aldi hori azaltzea oso zaila da. Horregatik, idatzizko bitxi apurren inguruan exegesi nekaezina egiten da. Ikusmuga 1200. urteko Erdi Aroko jauzitik aurrera argituko da.

Arkeologiak erakutsi du Araban erromanizazio sakonaren aztarnak daudela, baina aurreko substratuak

hambruna, pendía siempre la amenaza de la peste o las guerras, que eran la viva imagen de los temidos flagelos de la muerte y la ruina total.

No son abundantes los datos que ayuden a precisar en la zona estudiada, antes de la Baja Edad Media, el grado de desarrollo económico, las especializaciones y el sistema de producción y distribución. Lo que puede apuntarse es muy general. Predominaría un componente mixto de tipo agrario y pastoril, más que ganadero, con áreas destinadas a cereales, como lo prueban los molinos, huertos, linares, pastos, manzanales, y escasos viñedos muy localizados. El ganado, tanto disperso en pastizales, como recogido en áreas próximas, podría ser un importante complemento, por su carne, leche y pieles, junto con los productos del bosque y monte: madera, carbón, caleras, canteras, miel, caza y pieles. No se suponen importantes las minas, aunque sí las ferrerías, en buena parte con mineral importado de comarcas vecinas. Salinas explotadas en Añana y en Buradón, además de las próximas en el valle guipuzcoano de Léniz. Cestería, cerámica, el trabajo de la madera y otras artesanías tradicionales han perdurado hasta ahora. Muchos de estos elementos saldrían en busca de comprador en los mercados locales, estando localizados los más antiguos en Estíbaliz y Divina, para asentarse en las nacientes villas, como consta en sus cartas de población: Salinas de Añana (1140), Laguardia (1164), Vitoria (1181), Labraza (1196), Salvatierra (1256), Villarreal (1333), Alegría (1337), Elburgo (1337), Monreal de Zuya (1338). El día de mercado es fijado en los fueros tardíos: lunes en Alegría, martes en Salvatierra, miércoles en Villarreal y Elburgo, sábado en Monreal de Zuya. Queda libre el jueves, probablemente porque, desde fechas muy antiguas, se celebraba en Vitoria su popular mercado ese mismo día, como aún en parte perdura ahora.

### Panorámica histórica: avatares históricos hasta el año 1000

El historiador medievalista, avezado a bucear en la documentación de curias, chancillerías o *scriptoria* monástica, la echará de menos en una región casi ágrafa por falta de centros productores. De ello se resienten largos períodos, tanto de la Alta como de la Plena Edad Media, y las breves referencias son predominantemente eclesiásticas, foráneas, y no siempre explícitas. Por ejemplo, han preocupado a los historiadores auténticas lagunas, como la existente entre el año 985 y 1025, de problemática explicación. Por eso las raras joyas escritas son objeto de agotadora exégesis. El horizonte



*Salvatierra* / ***Agurain***

iraun zuenez, edo Antzinaroaren amaierako aldaketen eraginez, erromanizazioaren eragina ahuldu egin zen. Hizkuntza indoeuroparren aurrekoa den euskarak, eta herriko ohitura askok iraun egin zuten. Baina IX. mendearen erdialdetik inguru irekiagoetan bizimodu *mediterraneoak* agertu ziren nekazaritzan, gizarte-lokarriak, denbora-erritmoak, hori guztia kristau erlijioak lagunduta. Badirudi kristau erlijioak ez zituela izan orain arte pentsatzen ziren oztopoak. Argudio erabakigarria da Araban gotzaindegi bat ezarrita zegoela gutxienez IX. mendearen azken herenetik. Gotzaindegi horren erroak Iruña erromatar hiri zaharreko hormen artean arakatu daitezke, musulmanek Araba oparoan egindako erasoen faserik gogorrenetan babesleku garrantzitsua izan zen eta.

Kordobako Emirerriaren garaian, 767. eta 886. urteen artean, hogei espedizio baino gehiago egin ziren, hau da, Abd ar Rahmanen erreinalditik Muhamad I.aren erreinaldira. Horrez gain, Ebroren erdiko hara-

se empieza a despejar a partir del típico salto medieval que acompaña al año 1200.

La arqueología ha destacado en Álava las evidencias de una profunda romanización, aunque la permanencia del sustrato anterior, o las transformaciones de la tardoantigüedad, debilitaron su influjo. Pervivieron la lengua vasca, preindoeuropea, y muchas costumbres vernáculas. Pero desde mediados del siglo IX rebrotan en las zonas más abiertas los modos de vida *mediterráneos*, en la agricultura, lazos sociales, ritmos temporales, todo ello cementado por las prácticas de la religión cristiana, cuya implantación no parece haberse resentido de los frenos que se le atribuían hasta fechas recientes. Como argumento decisivo obra la constancia de un Obispado implantado en Álava al menos desde el último tercio del siglo IX, pudiendo rastrearse sus raíces entre los muros de la vieja ciudad romana de Iruña, oportuno refugio en las fases más duras de ataques musulmanes a la próspera Álava.

neko jaunek ere, Banu Qasi izenekoek, erasoak egiten zituzten. Ibn Idhari kronista islamiarrak Arabako 823ko kanpaina ospetsua kontatu zuen. Abd-Al-Karim buru zen, *Tseguer*-etik, hau da, Ebroren haranetik, Arabaren eta *Al-Quila* izenekoaren aurka, hau da, Arabaren eta gazteluen aurka. Arabari eraso egitea erabaki zuten, kristautasunaren atetzat zeukaten eta. Ustekabeko erasoa *Charnig* edo Guerniq haitzartetik egin zen (Sánchez Albornozen ustez, Gereñu mendatea da, baina ez dago inolako segurtasunik horren inguruan), eta Arabako Lautadan eragin zuzena izan zuen, hurrengoa esaten da eta: "atzean lautada bat zegoen, eta etsaiak bertan biltegiak eta hornikuntzak zituen". Horrek guztiak gogorarazten digu Arabak mugako lurren eginkizuna izan zuela ia bi mendetan, eta erasoaldi musulman ugari jasan zituela, 21 gutxienez 767. eta 886. urteen bitartean, hau da, Kordobako Emirerriko errege guztien agintepean: Abd ar Rahman I.a, Hixam I.a, Al-Hakam I.a, Abd ar Rahman II.a eta Muhamad I.a. Erasoak etengabeak ziren, Ebroren haranetik egiten ziren, eta Kordobatik bertatik ere iristen ziren, batzuetan Banu Qasi izenekoen laguntzaz edo ekimenez, baina lurraldea inoiz ez zuten konkistatu nahi izan, edo ez zuten konkistatzea lortu. Erantzun irmoak ere egon ziren batzuetan, eraso horiei aurre eginez edo erasoak geldiaraziz: 794, 795, 801, 803 eta 816an, Al-Hakam I.ak egindako erasoen aurrean, baina gero kanpaina suntsigarriak egon ziren, hala nola 823ko aipatutako espedizioa, Abd-al-Karim buru zela, edo azkena, 886an, Naiaratik Banu Qasi taldeko Muhammad ben Lopek gidatu zuena.

Kronista musulmanek Arabako kanpainetan *Madjus* izenekoak aipatzen dituzte. 816ko kanpainan Saltan aipatzen da, *Madjus* izenekoen zaldunik onena, eta 825ekoan espedizioa *Madjus* edo suaren gurtzaileen mendira iritsi zela esaten da. Oraindik ez dago azalpen argirik. Euskaldun paganoak zirela edo, aztarna gehiagorekin, garai horretan kostaldetik zebiltzan normandiarrak zirela esan izan da; izan ere, normandiarrak Asturiasen, Galizian, Lisboan eta Sevillan ere ibili ziren IX. mendearen erdialdean. Azkenean Nafarroako Antso I.a Gartzezek Errioxako leku garrantzitsuenak konkistatu zituen, hau da, Kalagorri eta Arnedo 918. urtean, Naiara 923an, oraindik espediziorik gabe. Mugako eginkizunak ez zion tregoarik eman Arabari. Eskualde batzuek Abd ar Rahman III.aren eta Almanzorren mehatxuak izan zituzten 990. urtearen inguruan.

Goi Erdi Aroko etapa horretan, kroniketan Arabak protagonismo handia lortu zuen. Lurralde horretan leinu gerraria sendotu zen, gazteluak zainduz, kondeen zerbitzura. Ez dago zalantzarik Arabak gaur egungo lu-

